

ENERITZ BUSTO

Atleta gazte honek hainbat lorpen eta titulu lortu ditu denboraldi honetan.

- Eneritz Lasarte-Oria Klubeko 1. atleta da bere kategorian mundu-mailako txapelketa batera joan dena. Aurtengo udan Caliko (Kolonbia) gazteen mundu-mailakoan izan zen, 100 m hesien proban.
- Gaur egun, Espainiako jubenilen txapelduna da aire libreko 100 m hesietan, Ciudad Realen garaile izanda
- Espainiako jubenilen txapelduna ere bada pista estaliko 60 m hesietan, Donostian lortutako garaipenarekin
- Euskadiko txapelduna ere bada hainbat modalitatetan.

IÑIGO IBARBURU

Iñigo Buruntzaldea igeriketa-klubeko igerilari gazte bat da, modalitate konplexu batean gogotik lan egiten duena, teknika handia eskatzen baitu: tximeleta estiloa. Bere lorpenen artean nabarmentzekoak:

- Euskadiko markak 50 eta 100 m tximeletako proban dauzka, igerileku motz eta luzean
- Euskadiko Txapelduna izan da 100 m tximeletako proban duela hainbat urtetatik.
- Parte hartu du Euskadiko Selektzioaren kide bezala hainbat aukeratan
- Espainiako juniorren txapeldunordea izan da 100 m tximeletako proban, 2014ean.
- Espainiako juniorren txapeldunordea izan da 100 m tximeletako proban, Cadizen, 2015ean.

XABIER ELIZEGI

Iraupeneko igerilaria, Donostiako Kairoskore klubeko kidea. Exijentzia handiko praktika. Bere palmaresetik, hauek nabarmenduko ditugu:

- 5. gelditu zen 31 km-ko UltraEbre proban 2014. urtean, eta lehena bere kategorian.
- Historiako bigarren gipuzkoarra da MANHATTAN ISLAND MARATHON SWIN igeriketa-proba ospetsuan parte hartu duena. Guztira 7 ordu 28 minutu behar izan zituen uharte famatu 52 km-ko itzulia osatzen, eta hirugarren gelditu zen. Proba horretan, australiar batek eta mexikar batek bakarrik hartu zioten aurrea. Aipatzekoa da korronteez eta itsas trafikoak zerikusi handia izan zutela azkeneko sailkapenean, ferry baten jokaldi makurrak 11 minutuz geldirik eduki baitzuen. Denbora hori kontabilizatu eze zutenez, 2. posturik gabe geratu zen.

EVA CRESPO

Lasarteoriatar honek Body Fitnessa praktikatzen du. Kirol horretan izan dituen arrakasta ugarietan lan ona egin duela erakusten dute. Bere lorpenen artean:

- Espainiako txapelduna izan da 4 aldiz
- Alemaniako Miss Unibertsoan lehena izan zen 2003an
- Munduko 4.a izan zen 2005eko txapelketan
- Europako Txapelketako 2.a izan zen Hannoverren 2007an
- Hainbat aldiz zain da txapeldun Open Nazionaletan.
- Aurten lehena izan da Espainiako Txapelketan.

AXIER ARTEAGA

Asier Intzako pilota-eskolan hasi zen 7 urte zituela, eta aurki hasi zen nabarmentzen. Lehen aldiz infantiletan federatu zen, eta 13 urte zituela Gipuzkoako txapeldunorde geratu zen. Finalak errepikatu zituen jubenil eta senior kategorietan. Kadete zenetik, herri arte torneoan parte hartu du Lasarte-Oria ordezkatzuz.

Gipuzkoatik jubenil eta seniorretan selekzionatua, bikotekako GRAVNI tornea irabazi du bi kategorietan.

Abenduaren 23an, BANKOA-DV torneoaren finala jokatu du Zumarragan. Hori izango du bere azken partida afizionatu gisa, espero baita urtarrilean profesionaletara pasatuko dela, Asegarce enpresaren eskutik.

MAIALEN CHOURRAUT

Maialen lehendik ere ondo ezagutzen du etxe hau. Bere karreran zehar izan dituen lorpen handiek behin baino gehiagotan pasarazi du hemendi. Borrokalari honen gogotik entrenatzen du, aste hau arte Rio de Janeiro izan da, Joko Olinpikoetarako sailkatzea lortzen. Entrenatzen jarraitzen duenez, ez dago gure artean, baina bere aita bidali zian nahi du aitorpena jasotzeko.

Bere lorpenak:

- Espainiako txapelduna da, eta hori 15 aldiz segidan lortu du
- Pekingo joko olinpikoetan parte hartu zuen 2008an
- Zilarrezko domina lortu zuen 2009an, slalomeko piraguismoaren munduko txapelketan
- Brontzezko domina lortu zuen 2011n, slalomeko piraguismoaren munduko txapelketan
- Slalomeko piraguismoaren munduko kopan parte hartu zuen 2012an, eta urrezko bi domina irabazi zituen Cardiffen eta Pauen jokatuako bi etapetan.
- Brontzea izan zen Londresko 2012ko Joko Olinpikoetan, K-1 indibidualeko proban
- 2012an, Maialen Gipuzkoako kirolari hoberena hautatu zuten Kirolaren XXIV. Galan
- Zilarrezko domina kolokatu zuen 2014an, slalomeko piraguismoaren Europako txapelketan
- 2015ean urrezkoa lortu zuen slalomeko piraguismoaren Europako txapelketan